

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2528

AGINDUA, 2020ko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten baitzaie 2020-2021 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eta dirulaguntza eska dezaten.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak (2008-03-05eko EHAA) Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du. Dekretu horren 8. artikuluen arabera, behar bezala baimendutako ikastetxeek heziketa-zikloak modu partzialean eskaini ahalko dituzte pertsona helduentzat bakarrik. Eskaintza horretan heziketa-zikloaren lanbide-modulu guztiak eskaini ahal izango dira eta ikasleek lanbide-moduluka egin ahalko dute matrikula, aipaturiko dekretuaren 29. artikuluan adierazten den bezala.

Halaber, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duen 2010eko martxoaren 22ko Aginduaren 7. artikuluen arabera (2010-04-12ko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailak eskaintza hau egiteko egoki deritzon beste deialdi egin ahal izango du, eta ikasturteko gutxienez deialdi bat egin beharko du. Ikastetxe pribatuetarako deialdien kasuan, eskolak emateko baldintzez gain, behar den finantzaketa lortzeko baldintzak ere arautuko dira.

Hori dela eta, agindu honen bidez, alde batetik, dei egiten zaie itunpeko ikastetxe pribatuei 2020-2021 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eska dezaten; eta bestetik, baldintzak ezartzen dira baimen hori eskatu duten ikastetxeek modalitate horretako heziketa-zikloak emateko dirulaguntzak eskuratu ditzaten.

Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

GINARRI KOMUNAK

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen xedea da: Lanbide Heziketa irakasten duten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egitea, hau eska dezaten: 2020-2021eko ikasturtean heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eta hala badagokio dirulaguntza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2010eko martxoaren 22an emandako Aginduari jarraituz.

2. artikulua.— Hartzaileak.

2020-2021eko ikasturtean eskaintza partzialeko modalitatean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko baimena eta, hala badagokio, dirulaguntza eskatu ahal izango dute Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko ofizialki baimenduta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuek.

3. artikulua.— Eskaeren aurkezpena modu elektronikoan egitea.

1.— Baliabide elektronikoak erabili behar izango dituzte erakunde interesdunek eskaerak, kon-tsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko. Izapidetze elektronikoa araututa dago Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan eta Informatika eta Teknologia zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenean; ebazpen horren bidez, Platea E-Administrazio Plataforma Teknologikoa onartu zen.

2.— Eskabidearekin, justifikazioarekin eta deialdiarekin zer ikusia duten gainerako izapideak egiteko jarraibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, honako helbide honetan:

https://euskadi.eus/dirug_laguntza/2020/espar/y22-izapide/eu

3.— Eskabidearen ondoko izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa «Nire Karpeta» atalean egongo dira.

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4. artikulua.— Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.— Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, aipatutako egoitza elektronikoa sartuta. Eskabideak aurkezteko argibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa egongo dira, ondorengo helbidean:

https://euskadi.eus/dirug_laguntza/2020/espar/y22-izapide/eu

2.— Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, eta berorri atxikitako dokumentazioa. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

3.— Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

4.— Eskaintza partzialaren proposamena zuzendaritza-taldeak egin behar du, eskaintza partzialeko irakaskuntza zerikusia duten irakasleek, edo irakasleek eskuordeturiko batzordeak eskaintza horren gainean aditzera emandako datuetan oinarrituta, edota zuzendaritza-taldearen beraren ekimenez.

5.— Klaustroak heziketa-zikloen eskaintza partziala eta ondoriozko jarduerak ezagutu behar ditu eta proiektu horrek ikastetxearen barne-antolakuntza izan dezakeen ondorioaren erantzukizuna bere gain hartu behar du. Halaber, proiektua egiteko behar diren neurriak hartzeko eta ikastetxearen Urteko Plangintza sartzeko konpromisoa hartu beharko da. Ikastetxeak Urteko Plangintza bidali beharko du Plangintza eta Antolaketa zuzendaritzara ebazpena argitaratu aurretik.

6.— Eskabidearekin batera nahitaezko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Laburpen-fitxa, adierazitako betebeharrak egiaztatzen dituzten erantzukizunpekoekin eta ikasturtean garatuko den moduluen eskaintzaren deskribapenarekin (bakar-bakarrik horiek konpetentzia-atalei lotuta ez daudenean). Bertan, oinarrizko argibideak adieraziko dira. «Laburpen-fitxa» inprimaki normalizatuan ezarritako eskemaren arabera egongo da. Inprimaki hau eskuratzeko, jo euskadi.eus helbide elektronikora. (Ikus I. eranskina).

Moduluak bakar-bakarrik eskatu beharko dira modulu horiek Konpetentzia-atalei lotuta ez daudenean.

b) Horrez gain, Eskaintzaren Justifikazioa aurkeztu beharko du euskadi.eus helbidean aurkitzen den «Eskaintzaren Justifikazioa» izeneko formularioak duen eskemari jarraituz.

7.– Dirulaguntza ere eskatuz gero, aldi berean, irakasteko baimena eskatu beharko da, «Laburpen-fitxa» ereduko bi laukiak beteta.

5. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hurrengo izango da:

1.– Irakasteko baimena eta dirulaguntza eskatzeko eskabideak: eskaerak aurkezteko epea hila-betekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Dirulaguntzarik gabeko baimen-eskariak: modulua hasi aurreko hogeita hamargarren egunean amaituko da epea; kontaketa horretan, aintzat hartuko da ikasturte-amaieran amaituta izan beharko dela modulua.

6. artikulua.– Eskabideetako akatsen zuzenketa.

1.– Dirulaguntzaren eskabidea behar bezala beteta ez badago edo atxiki beharreko dokumentazioa falta dela ikusiz gero, interesdunari eskatuko zaio 10 egun baliodunen epean osatzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko. Epe horretan zuzenketa egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

2.– Akatsak zuzentzeko jakinarazpena bide elektronikoz egingo da. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikorekin «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko dira.

Interesdunak jakinarazpenaren jasotze-agiria elektronikoki sinatzen duenean, jakinarazpena egintzat emango da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat hartuko da, eta izapidea gauzatutzat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

7. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Modalitate honetan heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimendutako eta, hala badagokio, diruz lagundutako heziketa-zikloen eskaintza onartutako baldintzetan gauzatzen dela bermatzeko, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak horien jarraipena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez.

2.– Ikasturtea amaitzean, 2021eko uztailaren 31 baino lehen, ikastetxeek dagokien Lurralde Unitatera «Azken Txostena» igorriko dute eta baita ere dagokien Lurralde Unitateak eskatutako edozein ziurtagiri edo dokumentu. «Azken Txostena» euskadi.eus (ikus I. eranskina) helbidean egongo da eskuragarri.

3.– Ikasturtea amaitzean, ikastetxeek bidalitako txostenean edo beharrezkoa den beste edozein datu nahiz txostenetan oinarrituta, dagokien Lurralde Unitateak ondoko agiriak igorriko dizkio Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari:

– Ikastetxeen zerrenda. Zerrenda horrekin batera, baimendutako eskaintzetan aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren adieraziko da eta, gutxieneko helburuak lortu ez badira, aipatu egingo da espresuki.

– Partaide kopuruari buruzko txosten estatistikoa, heziketa-moduluaren arabera, eskaintza partziala duen ikastetxe bakoitzeko eta partaideek lortutako emaitzak adierazita.

4.– Irakaste-aldian prestakuntza garatzean gorabeherarik egongo balitz heziketa-zikloen eskaintza partziala ematen duten ikastetxeetan, dagokien Ikuskaritzako Lurralde Burutzak txostena igorriko dio Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari, zuzendaritza horrek behar diren neurriak har ditzan.

8. artikulua.– Datu pertsonalak.

Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2020-2021eko ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikoak eskaintza partzian irakasteko baimena eta, hala badagokio, dirulaguntza eska dezaten dei egin eta haren finantzaketak arautzen duen prozeduraren organo kudeatzaileek prozedurarekin lotutako prestakuntza-eskaintzak antolatze eta prozedura kudeatzeko erabiliko dituzte eskabideetan jasotako datu pertsonalak, hala xedatuta baitago Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

II. KAPITULUA

LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOAK ESKAINTZA PARTZIALEAN IRAKASTEKO BAIMENA

9. artikulua.– Baimenaren baldintzak eta ondorioak.

1.– Eskaintza partzialeko modalitatean heziketa-ziklo bat irakasteko baimenerako beharrezko baldintza bakarra izango da heziketa-ziklo hori irakasteko baimenduta egotea.

Heziketa-ziklo bat irakasteko baimena izateak esan nahi du ikastetxe baimendu eskatzaileek gaitasuna eta instalazio nahikoak dituztela eskaintza osoko txanda eta orduekin bat ez datozen txanda eta orduetan eskatutako lanbide-moduluak eskaintza partzian emateko.

2.– Modalitate hau bakarrik LOE legeak ezarritako heziketa zikloetan baimenduko da. Halaber, salbuespen moduan LOGSE legeak ezarritako zikloei dagozkien moduluak ere baimendu ahal izango dira, modulu horiek LOE legeak ezarritako zikloak ordezkatuak izan badira 2018-2019 ikasturtean (ikus II eranskina), beti ere, ikastetxeak ziklo horiek modalitate partzian eskaini baditu aurreko ikasturteetan.

Halaber, LOGSE legeak ezarritako zikloak baimendu ahal izango dira, ziklo horiek LOE legeak ordezkatu ez dituenetan eta ikastetxeak 2018-2019 ikasturtean ikasketak horiek eman dituenetan, beti ere, 2018-2019 ikasturtean eskaintza partzialaren bidez zikloa bukatu ez eta heziketa-zikloari dagokion titulua lortu ez denean.

3.– 2020-2021 ikasturtean modalitate honen bidez emango diren moduluak edo moduluek, bermatu beharko dute, gutxienez, LOE legearen konpetentzia-atal bat egiaztatzea, baldin eta konpetentzia-atale lotutako modulu bat edo zeharkako moduluak geratzen badira eskaintzeko.

4.– Ikastetxeak eskatutako konpetentzia-atalak irakasteko baimenak dakar ikastetxearen konpromisoa 2020-2021 ikasturtean irakasteko konpetentzia-atala egiaztatzeko gainditu behar diren modulu guztiak irakasteko.

5.– Eskaintza partzialeko modalitate hau irakasteko baimenak berekin ekarriko du irakaskuntza horiek beraiek ikasten dituzten ikasleentzat ondorio akademikoak izatea, ziurtapenaren ondorioetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko martxoaren 22ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskaintza partzialeko modalitatea irakasteko baimenak berez ez dakar dirulaguntza lortzea.

10. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebatzi eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko era eta publizitate-prozedura.

1.– Deialdi honetan ezarritako baldintza bete dela eta eskatutako agiriak bidali direla egiaztatu ondoren emango da baimena.

2.– Plangintza eta Antolaketa zuzendariari dagokio agindu honetan arautzen den deialdiaren ebazpena ematea, baimenari dagokionez.

Ebazpenaren jakinarazpena banaka egingo zaie interesdunei, bide elektronikoz. Jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren «Nire Karpeta» atalean ikusi ahal izango dira.

Jakinarazpena egintzat joko da interesdunak jasotze-agiria elektronikoki sinatzen duen unean. Jakinarazpena bidali eta hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena eze-tsitzat hartuko da, eta izapidea gauzatutzat. Prozedurak jarraitu egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

Prozedura ebazteko eta ebazpena pertsona interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, deialdiaren agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. Artikuluan xedatutako ondoreetarako.

3.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekursoa jarri ahal izango zaio Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

4.– Irakasteko baimena eta dirulaguntza eskatu direnetan, bi espedienteak aldi berean ebatziko dira.

11. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak.

1.– 2020-2021eko ikasturterako baimentzen den Lanbide Heziketako heziketa-zikloen eskaintza partziala ikasturte horretarako Ikastetxearen Urteko Planean sartu beharko da.

2.– Ikasketa Burutzak baimendutako eskaintza partziala abian jartzen dela zaindu eta horretarako jarduerak koordinatu beharko ditu. Lan hori Ikasketa Burutzak berak egingo du edo, bestela, berak eskuordetzen duen irakasleak, modalitate horretako prestakuntza-koordinatzailea izango denak. Hala bada, koordinatzaile horrek, aldiro, eskaintzaren eta jardueren garapenari buruzko informazioa emango dio Ikasketa Burutzari, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da gai horrekin zerikusia duten gaiak aztertzen direnean.

3.– Ikastetxe onuradunek azken txosten bat egingo dute, eta bertan, baimendutako eskaintzan aurreikusitako helburuen garapen-maila eta emaitza partzialen berri emango da. Ikastetxeek txostena 2021eko uztailaren 31 baino lehenago helaraziko dute. Justifikazio hau bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da, egoitza elektronikoen «Nire Karpeta» atalean sartuta <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> 2021eko uztailaren 31 baino lehenago.

Justifikazioari buruzko zehaztapenak ondorengo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen xehatzen dira: <https://euskadi.eus/dirulaguntza/2020/espar/y22-izapide/eu>

4.– Entitate eskatzaileak bere gain hartu behar du, erabakian kontuan hartutako baldintzetako eragiten dien edozein zirkunstantzia aldatuz gero, aldaketa hori jakinarazteko konpromisoa.

III. KAPITULUA

BAIMENDUTAKO HEZIKETA-ZIKLOAK IRAKASTEKO DIRULAGUNTZA

12. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzak.

1.– Dirulaguntza eskatzen duen ikastetxeak, era berean, heziketa-ziklo berak 2019-2020 ikas-turterako eskaintza partzialean irakasteko baimena eskatu behar izango du aurretiaz.

2.– Deialdi honen bidez ezin izango dute dirulaguntzarik lortu gutxienez 12 ikasle ez duten taldeek.

Erakunde eskatzaileak konplitu egin beharko ditu hauetan xedatutako betekizunak: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina), Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena, aipatutako laguntzen onuradun izateko indarrean dagoen araudia baita.

4.– Erakunde eskatzailea dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez dauka, eta ez dago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.

5.– Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Betekizun biek iraun behar dute emandako dirulaguntzak likidatu arte; beraz, egiaztatu egingo da bete egin direla bai emateko orduan bai ordaintzeko orduan.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio laguntza ematen duen organoari zuzenean egiaztatzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela laguntzak eskatzen dituzten erakundeek; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, beti ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

Nolanahi ere, erakunde eskatzaileek espresuki ukatu dezakete baimen hori, eta, hala egin ez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako eran; errege dekretu horren bidez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen da.

6.– Ezin izango dute laguntzarik eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusten diren egoeren eraginpean dauden erakundeek. Halaber, agindu honetan araututako laguntzen deialdietan ezin izango dute parte hartu, kasuan kasuko zigorak ezarritako epean, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigor- edo administrazio-arloan zigortuta dauden erakundeek, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean daudenek, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

Era berean, ikastetxe onuradunek, orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

13. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Heziketa-zikloak 2020-2021 ikasturtean eskaintza partzialaren modalitatean diruz laguntzeko erabiliko diren diru-baliabideak 526.000,00 euro izango dira. Aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2020 ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak baimendutako kredituen arabera.

2.– Esleitutako zenbateko osoa 526.000,00 euro, honela banatuko da:

– % 70 ziklo industrialetarako (III. eranskina).

– % 30 gizarte-zerbitzuetarako eta beste (III. eranskina).

Eskabiderik ez dagoelako edo betekizunak betetzen ez direlako eremu baterako esleitutako diru-kopurua agortuko ez balitz, diru hori beste eremuari gehituko zaio ebaluazio-batzordeak bere proposamenen adierazi bezalaxe.

3.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen eta laguntzen emakida eta, hala badagokio, ordainketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta honen erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik bideratzen ari diren itzulera-edo zigor-prozedura guztiak amaitzearen baldintzapean geratuko da.

14. artikulua.– Dirulaguntza emateko prozedura.

1.– Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta dirulaguntza eskatu duten baimendutako eskaera guztien arteko lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da dirulaguntza ematea.

2.– Balorazio-batzordeak eskaerak aztertuko ditu artikulua honetan adierazitako irizpideen arabera eta puntuak esleituiko ditu.

3.– Ondoren bi zerrenda egingo dira, bat ziklo industrialetarako eta beste bat gizarte-zerbitzuetarako eta beste. Bi zerrendak egingo dira puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera hurrenkeran eta dirulaguntzak hurrenkera horren arabera esleituiko dira, eskuragarri dauden aurrekontu-kredituak edo horiek eguneratzearen ondoriozkoak agortu arte.

4.– Eskaerak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira. Ondorengo helbideetan jasoko dira a) eta b) puntuak baloratzeko datuak:

<http://www.lanbide.euskadi.eus/ikerketa-estatistikak/>

<http://www.lanbide.euskadi.eus/estatistika/2017an-lanbide-heziketa-bukatu-dutenen-lan-munduratzeara/y94-estadist/eu/>

a) Eskaera/eskaintza. Eskatutako lanbide-arloak lan-merkatuan duen eskaria eta 2018-2019 ikasturtean izandako matrikula kopurua. Gehienez, 20 puntu.

20 puntu: Matrikulak < eskaria

10 puntu: Matrikulak = eskaria

0 puntu: Matrikulak > eskaria

b) Enplegarritasuna. Eskatutako zikloaren enplegarritasuna. Gehienez, 10 puntu.

10 puntu: % 100

c) Esperientzia. Ikastetxeak eskaintza partzialeko heziketa-zikloak ematen izandako ibilbidea. Gehienez, 20 puntu.

5 puntu eskaintza partziala eskaintzen ikasturteko.

d) Finkatzea. 2018-2019 ikasturtean Heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematen finkatutako taldeen ehunekoak. Gehienez, 10 puntu.

10 puntu: % 100

7 puntu: $80 \leq P < 100$

4 puntu: $50 \leq P < 80$

0 puntu: $P < 50$

e) Eraginkortasuna. 2017-2018 ikasturtean KU edo moduluren bat gainditu dutenen ikasleen ehunekoak eta ikasketak utzi duten ikasleen ehunekoak. Gehienez, 10 puntu.

10 puntu: % 100

7 puntu: $80 \leq P < 100$

4 puntu: $50 \leq P < 80$

0 puntu: $P < 50$

f) Emakumeen parte hartzea. 2018-2019 ikasturtean KU edo moduluetan matrikulatutako emakumeen ehunekoak. Gehienez, 10 puntu

10 puntu: % 100

g) Euskara: D ereduan eskainitako zikloek, gehienez ere, % 20 gehituko dute puntuazio osoa. Puntuazio osoa aurreko irizpideei dagozkien puntuazioak batuta lortzen da. KU edo moduluren bat D ereduan eskainiz gero, puntuazioa igoko da proportzionalki, alegia, moduluetan eskainitako orduen eta zikloak dituen orduen proportzioan, Lan Prestakuntzari dagozkion orduak kontuan hartu gabe.

5.– Berdinketarik balego, kontuan hartuko da balorazio-irizpideetan lortutako puntuazioa, 14.artikuluko 4.puntuko hurrenkera jarraituta.

15. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Dirulaguntzaren eskaera berariaz sortutako ebaluazio-batzorde batek balioetsiko du. Batzordea honako hauek osatuko dute:

– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako bi teknikari; bata batzordeburuaren egitekoak beteko ditu, eta bestea idazkari-lanetan arituko da. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatuko ditu.

Presidente: M.^a Eugenia Santos Urdiain, zerbitzuko arduraduna.

Idazkaria: Itziar Arrieta Beistegui, zerbitzuko teknikaria.

– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari bana. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatuko ditu.

Araba: Mikel Imaz.

Bizkaia: Luis Ana Guinea.

Gipuzkoa: Maite Lizartza.

16. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebatzi eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko era eta publizitate-prozedura.

1.– Agindu honetan ezarritako dirulaguntza emateko prozedura ebazteko epea gehienez ere, 6 hilekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Deialdi honetan aurkeztu diren irakasteko baimena eta dirulaguntza eskatzeko eskabi-deak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta Plangintza eta Antolaketa zuzendariari dagokio deialdiaren ebazpena ematea, Ebaluazio Batzordearen proposamenez. Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da, deialdiaren agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; artikulua honetako 1. apartatuan adierazitako epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi dela ulertu beharko dute interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutako ondoreetarako.

3.– Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren 3 ebazpenen bidez eman edo ukatu egingo da eskaintza partzialaren bitartez irakasteko baimena eta eskatutako dirulaguntza. Lehenengo ebazpenak heziketa zikloak eskaintza partzialaren bitartez emateko baimena lortu duten ikastetxeak jasoko ditu. Bigarrenak industria-eremuko heziketa zikloak emateko baimena eta finantzaketa lortu duten ikastetxeak jasoko ditu. Hirugarren ebazpenak gizarte heziketa zikloak emateko baimena eta finantzaketa lortu duten ikastetxeak jasoko ditu. Nolanahi ere, baimena edo finantzaketa ukatzeko arrazoiak adieraziko dira.

Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, eta jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita izango du eragina. EHHAn ere argitaratuko da.

4.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpenaren prozeduraren aurka gorako errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Artikulu honetako lehen atalean adierazitako epea igaro eta prozeduraren ebazpenik jakinarazi ez bada, interesatuek euren eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute, urriaren 1go 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen 25.1.a artikuluari jarraituz.

17. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– 2020-2021eko ikasturtean eskaintza partzialean irakatsiko diren heziketa-ziklo en finantza-keta, baimendutako moduluen iraupen finkoaren arabera zehaztuko da.

2.– Lanbide Heziketako heziketa-zikloen konpetentzia-atalak eta moduluak 2020-2021eko ikasturtean irakasteko ezarritako gehienezko modulu ekonomikoak honako hauek dira:

– Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloen konpetentzia-atalak eta moduluak: 98 euro/ordua.

– Soldadura eta galdaragintzako erdi-mailako heziketa-zikloaren Giro naturaleko soldadurako eta Babes-giroko soldadurako konpetentzia-atalak: 116,50 euro/ordua.

3.– Diruz lagunduko diren gastuak dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikulua ezarritakoari lotuko zaizkio.

– Langile-gastuak.

– Funtzionamendu-gastuak.

Funtzionamendu-gastuek ezingo dute gaintitu finantzatutako gastuen % 30. Halaber, funtzionamendu-gastu honetatik, bai zuzendaritza, koordinazio, kudeaketa eta administrazio-gastuek eta lokalen alokairuak edo amortizazioak ezingo dute gaintitu batera funtzionamendu-gastuen herena.

4.– Emandako dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, irakaskuntza horiek irakastetik sortutako eta behar bezala justifikatutako aurrekontu-defizita baino handiagoa.

5.– Diruz lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren % 50eraino azpikontratatu ahal izango du erakunde onuradunak, beti ere dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikulua dioena betez.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzaren ordainketa epe bitan egingo da.

a) Lehenengoa, jaso beharreko diru guztiaren % 45a 20.a) artikuluan aipatutako epea igarotakoan egingo da, dirulaguntzari uko egin ez bazaio.

b) Eta geratzen den zenbatekoaren bigarren ordainketa 2021ean egingo da, berriz, 11.3 eta 20.f artikuluetan adierazitako agiriak aurkeztu eta horiek ebaluatu ondoren.

19. artikulua.– Dirulaguntza aldatu eta itzultzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok, eta, betiere, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuetatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzeak, eta, hala badagokio, helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskuratzek ebazpena aldatzea ekarriko du berekin; kasu guztietan, dirulaguntzaren onuradun izateko, dirulaguntzei buruzko araudiak ezarritako gutxieneko baldintzak bete behar dira.

Horretarako, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak likidazio-ebazpena emango du eta, han, eman diren dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37.artikuluan ezarritako kasuak nahiko arrazoi izango dira dirulaguntzak ezeztatzeko eta berandutze-interesekin batera itzularazteko, dirulaguntza ordaintzen denetik itzularaztea egokia dela erabaki arteko interesak, hain zuzen ere. Horretarako, egoli irizitakoak egiaztatzeko eskumena izango du Hezkuntza Sailak.

3.– Jasotako dirulaguntzaren itzulketa eta dagokion berandutza-korritua arau hauen arabera eskatuko da: Euskadiko Ogasun Orokorren Printzipio Arautzaile Legearen 53. Artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina), abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko II. Titulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. Artikulua.

4.– Aipatutako araudian jasotako gorabeheraren bat eta, bereziki, ondoren aipatzen diren gorabehera horietakoren bat gertatuz gero, ikastetxeek jasotako dirulaguntza eta sortutako legezko interesak itzuli beharko dituzte:

a) Burutzen den proiektuaren eta ikastetxe onuradunek aurkeztutako azken txostenaren jarraipenetik eskaintza onartzerakoan, hasierako proiektuan aurreikusitako gutxieneko helburuak ez dituztela lortzen ondorioztatzea.

b) Agindu honetan eta agindua garatuko duten ebazpenetan xedatutakoa nola edo hala ez betetzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako dirulaguntzen onuradunek dituzten eginbeharrak ez betetzea.

Betebehar horrek ez du zerikusirik izango ezar litezkeen zehapenekin.

20. artikulua.– Diruz lagundutako ikastetxeen betebeharrak.

Diruz lagundutako ikastetxeek, baimendutako ikastetxeetarako ezarritako betebeharrez gain, ondorengo hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, deialdiaren ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek esanbidezko ukapena egiten ez badiote eta idatziz horren berri ematen ez badute, dirulaguntza onartzen dutela ulertuko da.

Heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean irakasteko baimenduta dauden, baina, horiek irakasteko dirulaguntza eskaturik, hura lortu ez duten ikastetxeek idatziz berretsi beharko dute, hamabost egun naturaleko epean, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren aurrean, baimendutako moduluak irakasteko asmoari eusten diotela. Bestela, baimenari uko egin diotela ulertuko da.

b) Dirulaguntza, eman den xede jakinerako erabiltzea.

c) Onuradunek programa, jarduera, inbertsio edo diruz lagun daitezkeen edozein motatako ekintzen finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko dute, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 18.4 artikuluan xedatutako baldintzei jarraikiz.

d) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraztea eskatzen dieten informazioa, deialdi honen kargurako jasotako dirulaguntzei buruzkoa.

e) Lanbide Heziketako zikloak eskaintza partzalean irakasteko baimendutako ikastetxeek dituzten baldintza guztiak ere betetzea; hain zuzen ere, agindu honen 11. artikuluan adierazitakoak.

f) Txosten ekonomikoa inprimaki normalizatuan ezarritako eskemaren arabera egin eta «nire karpeta» bide elektroniko bidez bidali beharko da. Inprimaki hau eskuragarri dago euskadi.eus orrialdean. Txostenak ondorengo agiriak izan behar ditu: gastu guztien zerrenda exhaustiboa, kapituluak eta kontzeptuak kontuan hartuta ordenatuta, fakturen zerrenda kronologikoki antolatuta eta beste edozein frogagiri, betiere legez onartuta badaude eta emandako dirulaguntzari

badagozkio. Eranskin horrekin batera, fakturak eta horien egiaztagiria aurkeztuko dira, euskarri elektronikoan, edo kopia digitalizatuak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutako baldintzei jarraikiz.

Dirulaguntzaz gain, finantzaketaz ere baliatu badira jarduerak bai baliabide propioez bai bestelako dirulaguntzez edo baliabideez, justifikazio horretan, egiaztatu beharko da zenbatekoa, haren jatorria eta funts horiek diruz lagundutako jardueretarako erabili direla.

Ikastetxeek txostena bitarteko elektronikoen bidez 2021eko uztailaren 31 baino lehenago aurkeztuko dute ondorengo helbidean: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Justifikazioari buruzko zehaztapenak ondorengo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan xehatzen dira: <https://euskadi.eus/dirulaguntza/2020/espar/y22-izapide/eu>

Agindu honen bidez deitutako laguntzen erakunde onuradunek:

- 1) Jasotako funtsen erabileraren egiaztagiria gorde beharko dituzte, egiaztatu eta kontrola daitezkeen bitartean.
- 2) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- 3) Deialdi honen bidez diruz lagundutako prestakuntza-ekintzek guztiz doakoak direla parte-hartzaileentzat bermatu behar dute.

21. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honen bidez lortzen den dirulaguntza bateraezina da beste erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako emandako beste edozein dirulaguntzarekin.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek aurreikusi ez duenari dagokionez, 39/2015 Legea hartuko da aintzat, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, bai eta dirulaguntza publikoak arautzen dituen legedia ere.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hileko epean. Epe biok agindu hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA


Agindu honek EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2020ko ekainaren 26a, ostirala

Inprimatu



I. ERANSKINA

DOKUMENTUEN EREDUAK

LABURPEN-FITXA

LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA-ZIKLOAK ESKAINTZA PARTZIALEAN IRAKASTEKO
BAIMENA ETA, BERE KASUAN, DIRU-LAGUNTZA
2020-2021 IKASTURTEA

ESKATZEN DUT:

☒ BAIMENA ☐ FINANTZAKETA

Eskatutako hezkuntza eskaintza:

Araua	Maila	Lanbide-arloa	Heziketa zikloa	Irakatsiko den lanbide-modulua, eskatutako UCra lotutakoa	Eskatutako kompetentzia-arloa	Lanbide-modulua, UCra lotugabea	Iraupena	Ikasle-kopurua	Aurrekontua (*)		
									Langileak	Funtziona mendua	Guztira
LOGSE/LOE											

(*) Finantzaketa eskatzen denean bakarrik bete.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Bateragarritasun-adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ikastetxeak heziketa-ziklo hori irakasteko baimena daukala.
- Klaustroak heziketa-zikloen eskaintza partziala eta ondoriozko jarduerak ezagutzen dituela eta proiektu horrek ikastetxearen barne-antolakuntzan izan dezakeen ondorioaren erantzukizuna bere gain hartzen duela. Halaber, proiektua egiteko behar diren neurriak hartzeko eta ikastetxearen Urteko Plangintzan sartzeko konpromisoa hartzen duela.
- Ordezkaritza Organo Gorena eskabidearekin bat datorrela. Halaber, aurkeztutako eskaintza ezagutzen eta onartzen duela eta proiektua egiteko behar diren neurriak hartzeko eta ikastetxearen Urteko Plangintzan sartzeko konpromisoa hartzen duela, onartzen bada.
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.
- Entitate eskatzaileak betetzen dituela indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Ordainduta dauzkala diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Entitate eskatzaileak diru-laguntza publikoak jaso ezin izateko zigorraren, bide penalaren edo administratiboaren bidez, pean ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inolako legezko debekutan egotea ere, otsailaren 18ko 4/2005 legeak, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunarenak, azken xedapen seigarrenean zehaztutakoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gerta daitezkeenak barne.
- Entitate eskatzailean ez dela eskuratu helburu bererako inolako diru-laguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako bitartekorik edozein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatutatik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2019-2020ko ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikoak eskaintza partzalean irakasteko baimena eta, hala badagokio, diru-laguntza eska dezaten dei egin eta haren finantzaketak arautzen duen prozeduraren organo kudeatzaileek prozedurarekin lotutako prestakuntza-eskaintzak antolatze eta prozedura kudeatzeko erabiliko dituzte eskabideetan jasotako datu pertsonalak, hala xedatuta baitago Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).
- Entitate eskatzaileak badakiela eskatutako diru-laguntza bateraezina dela edozein erakunde edo entitate publikok zein pribatuk helburu berdina lortzeko emandako beste laguntzekin.
- Entitate eskatzaileak baimena ematen diola Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaztatu dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEAK OFIZIOZ EGIAZTATZEKOAK

Araudi aplikagarriarekin bat etorriz, prozedura honen organo instrukzio-egileak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko zerga Agentzia)
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN).
- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo instrukzio-egileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.)

Oharra: onartu ezean, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

(Tokia)
(Titularren sinadura elektronikoa)

(Data)

2020ko ekainaren 26a, ostirala

ESKAINTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Ikasturtea	Ikastetxearen kodea	Ikastetxearen izena	Arduraduna	Kargua	Telefonia	E-maila

Modulu bakoitzeko taula bat bete:

Lanbide arloa:		Heziketa zikloa:		Industria-zikloa (Bai/Ez)	
Lanbide-modulua:		Orduak:	Konpetentzia-unitatea:	Araua (LOE/LOGSE):	Eredua (AD):
	Bukatzeko eguna	Sartzeko ordua	Ateratzeko ordua	Irakaslea	Especialitatea
Hasteko eguna					

1. Eskaintzaren arrazoiak. Konpetentzia-unitate edo modulu horiek eskatzeko arrazoiak
2. Eskaintza partzialeko bilakaera ikastetxean
2.1. Aurreko ikasturtetan irakatsitako moduluak, zein ikasturtetan eta zer ziklokoak diren adieraziz..
2.2. 2019-2020 ikasturtean eskatutako talde kopurua eta finkatutako talde kopurua.
2.3. 2018-2019 ikasturtean KU edo modulu bakoitzean matrikulatutako ikasle kopurua, gainditu duten eta ikasketak utzi dituzten ikasleen ehunekoak.
2.4. 2019-2020 ikasturtean KU edo moduluetan matrikulatutako emakumeen ehunekoak.
2.5. 2020-2021 ikasturtean D ereduan eskaini nahi diren zikloak, KUak eta moduluak.
3. Beste ohar batzuk

TXOSTEN EKONOMIKOA
EGINDAKO GASTUEN LABURPENA
2020-2021 IKASTURTEA

Pertsonal-gastuak							
	Mota	Zenbakia	Data	Igorlea	Kontzeptua	Zenbatekoa guztira (€)	Emandako zenbatekoa (€)
1							
Pertsonal-gastuak guztira							

Funtzionamendu-gastuak							
	Mota	Zenbakia	Data	Igorlea	Kontzeptua	Zenbatekoa guztira (€)	Emandako zenbatekoa (€)
1							
Funtzionamendu-gastuak guztira							

Ohar argigarriak

Egiaztagirien zerrenda sailkatzerakoan honako datu hauek azaldu behar dira:

- Mota: agiria faktura, nomina, TC1, TC2, KLA edo LIZ den zehaztu. Kooperatiba edo pertsona fisikoa bada, dokumentu baliokideak.
- Zenbakia: egiaztagiria faktura bada, duen zenbakia edo, kasua bada, bere seriea ala kodea.
- Data: fakturaren jaulkitze data. Nomina bada, dagokion hilea.
- Igorlea: fakturaren igorlearen izen-abizenak edo gizarte izendapena. Nomina bada, langilearen izen-abizenak.
- Zenbatekoa guztira: fakturaren kopurua bez gabe, edo nominaren kopurua.
- Emandako zenbatekoa: guztirako zenbatekotik dagokion kontzeptuari zer zenbateko esleitzen zaion adierazi.
- Guztira: kontzeptu bakoitzean fakturen eta nominen bidez zuritutakoaren batuketa da.

2020ko ekainaren 26a, ostirala

AZKEN TXOSTENA

Ikasturtea	Ikastetxearen kodea	Ikastetxearen izena	Arduraduna	Kargua	Telefonia	E-mail

Modulu bakoitzeko taula bat bete:

Lanbide arloa:		Heziketa zikloa:	
Heziketa modulua:		Kompetentzia-unitatea:	
Matrikulatuak		Uzteak	Aurkeztuak
Hasteko eguna	Bukatzeko eguna	Astearen eguna	Sartzeko ordua
			Ateratzeko ordua
			Irakaslea
			Espezialitatea

(*) Gai diren portzentajea kalkulatzeko, matrikulazioaren guztizkoa kontuan hartuko da.

1. Eskaintzaren testuinguruaren ezaugarri orokorrak eta bereziak
2. Eskaintzaren helburuak bete direnak
2.1. Hasieran proposatutako helburuak.
2.2. Proiektua amaitzean lortutako helburuak.
3. Eskaintza garatzean egin diren aldaketak, hain zuzen, ondokoetan izan direnak
3.1. Metodologia.
3.2. Antolakuntza.
3.3. Egutegia.
4. Erabili den ebaluazio-prozesuaren sintesia
5. Ondorioak
5.1. Eskaintzaren lorpenak.
5.2. Ikastetxean izan duen eragina.
6. Uzte eta suspentsoen arrazoiak
7. Beste ohar batzuk

II. ERANSKINA

LOGSE ZIKLOA, 2018-2019 IKASTURTETIK AURRERA BERTAN BEHERA GERATZEN HASI ZENA

Arloa	Zikloa
Jarduera fisikoak eta kirolak	Jarduera fisikoen eta kirolen animazioa

III. ERANSKINA

INDUSTRIA-ZIKLOAK

Arloa	Zikloa
Arte grafikoak	Aurreinprimaketa digitala
	Inprimaketa grafikoa
	Argitalpen inprimatuaren eta multimedia-argitalpenen diseinua
	Produktzio grafikoaren diseinua eta kudeaketa
Elektrizitatea eta elektronika	Instalazio elektriko eta automatikoak
	Telekomunikazioko -instalazioak
	Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak
	Telekomunikazio- eta informatika-sistemak
	Mantentze elektronikoa
	Automatizazioa eta robotika industrialak
	Elektromedikuntza klinikoa
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Patroigintza eta moda
Elikagaien industriak	Okintza, gozogintza eta konfiteria
	Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
Energia eta ura	Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia
	Energia berriztagarriak
Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa
	Soldadura eta galdaragintza
	Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa
	Metalezko eraikuntzak
	Fabrikazio mekanikoko diseinua
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	Ibilgailu automobilen elektromekanika
	Makinen elektromekanika
	Karrozeria
	Automozioa
Instalatze eta mantentze-lanak	Beroa sortzeko instalazioak
	Hozteko eta girotzeko Instalazioak
	Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea
	Mantentze elektromekanikoa
	Mekatronika industrialak
Itsasoa eta arrantza	Ontzi eta itsasontzien makineriaren zainketa eta kontrola
	Ontzi eta itsasontzien makineriaren zainketa antolatzea
Kimika	Ingurumen kimika
	Kimika-instalazioak

2020ko ekainaren 26a, ostirala

Arloa	Zikloa
	Laborategiko eragiketak
	Analisiak egiteko eta kalitatea kontrolatzeko laborategia
	Kimika industrialak
	Farmazia-produktuak, bioteknologikoak eta antzekoak
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoak	Arotzeria eta altzarigintza
	Diseinua eta altzari-hornikuntza
	Instalazioa eta altzari-hornikuntza

ZERBITZUAK

Arloa	Zikloa
Administrazioa eta kudeaketa	Administrazioa eta finantzak
	Administrazio-kudeaketa
	Zuzendaritzari laguntza ematea
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Neurriko jantziak eta ikuskizunetakoak
Eraikuntza eta obra zibila	Barnealdeetako dekorazioko eta birgaitzeko obrak
	Eraikuntza
	Eraikuntza-obrak antolatzea eta kontrolatzea
	Eraikuntza-proiektuak
	Obra zibileko proiektuak
Gizarte eta kultur zerbitzuak	Animazio soziokulturala eta turistikoa
	Gizarteratzea
	Haur hezkuntza
	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
Informatika eta komunikazioak	Mikroinformatika-sistemak eta sareak
	Plataforma anitzeko aplikazioen garapena
	Sare-informatika sistemen administrazioa
	Web aplikazioen garapena
Instalatze eta mantentze-lanak	Laneko arriskuen prebentzioa
Irudi pertsonala	Estetika eta edergintza
	Estetika integrala eta ongizatea
	Ile-apainketa eta -kosmetika
	Ile-apainketako estilismoa eta zuzendaritza
	Irudi pertsonalaren eta korporatiboaren aholkularitza.
	Karakterizazio eta makillaje profesionala
Irudia eta soinua	3D animazioak jokoak eta multimedia elkarreragileak
	Disc-jockeya bideo- eta soinua
	Ikus entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa

2020ko ekainaren 26a, ostirala

Arloa	Zikloa
	Ikus-entzunezko eta ikuskizunen produkzioa
	Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako soinua
	Irudia argiztatu hartu eta tratatzea
Itsasoa eta arrantza	Akuikultura
	Itsas garraioa eta alturako arrantza
	Itsasertzeko nabigazioa eta arrantza
	Urpeko eragiketak eta eragiketa hiperbarikoak
Jarduera fisikoak eta kirola	Gorputz eta kirol-ekintzen animazioa
	Natura-ingurunean gorputz eta kirol-ekintzak gidatzea
	Egokitzapen fisikoa
Merkataritza eta Marketina	Garraioa eta logistika
	Marketina eta publizitatea
	Merkataritza jarduerak
	Nazioarteko merkataritza
	Salmentak eta merkataritza-espazioak kudeatzea
Nekazaritza	Basoa eta natura-ingurunea kudeatzea
	Lorezaintza eta loradenda
	Natura-ingurunea aprobetxatzea eta kontserbatzea
	Nekazaritza eta abeltzaintza produkzioa
	Nekazaritza ekologikoa
	Paisajismoa eta landa-ingurunea
Osasungintza	Ahoaren eta hortzen higieena
	Anatomia patologikoa eta zitodiagnosia
	Diagnosi irudia eta medikuntza nuklearra
	Dietetika
	Erizaintzaren laguntza
	Erradioterapia eta dosimetria
	Farmazia eta parafarmazia
	Hortz-protesiak
	Ingurumen-osasuna
	Laborategi kliniko eta biomedikoa
	Ortoprotesia eta laguntza-produktuak
	Osasun-dokumentazioa eta -administrazioa
	Osasun-larrialdiak
Ostalaritza eta turismoa	Bidaia agentziak eta ospakizunen kudeaketa
	Jatetxe arloko zerbitzuak
	Jatetxe arloko zerbitzuen zuzendaritza
	Sukaldaritza eta gastronomia

Arloa	Zikloa
	Sukalde zuzendaritza
	Turismo gidaritza informazioa eta laguntza
	Turismo-ostatuen kudeaketa
Segurtasuna eta ingurumena	Ingurumen-hezkuntza eta kontrola